



UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDOIA



PELIKULA IKUSTERA JOAN AURRETIK IRAKASLEAK EGITEKO LANA

Historia mamitsua duen
izenburua: *Leo Da Vinci.*
Mona Lisa misioa

Zuzendaria
Sergio Manfio

Animazio-ikuskatzailea:
Anna Stinfale

Sinopsia

Proposamen didaktiko
hau lantzeko: aholku
metodologikoak



PELIKULA IKUSTERA JOAN AURRETIK IKASLEEKIN EGITEKO LANA

Errenazimentua Italian.
Mugimendu humanista

Hezkuntza unibertsalaren
aldeko apustua


Leonardo da Vinciren biografia

Leonardo da Vinciren
asmakuntzak

Mona Lisa, historian gehien
begiratu den XV. mendeko "Mona"

Errenazimentuko
edertasun-kanonak

Giza eskubideei buruzko
gogoeta



PELIKULA IKUSI ONDOREN IKASGELAN EGITEKO LANA

Filma hitz bakarrean

Pertsonaien deskribapena

Elkarrikketa lantzeko
proposamenak:

- Leonardo da Vinci. Polimata.
- Leonardo da Vinciren asmakuntzak.
- Hobeto bizitzen lagundu diguten
historiako asmakuntzak berriak
ditzagun.
- Azter ditzagun XV. eta XXI.
mendeko edertasun femenino eta
maskulinoaren kanonak.

Ariketa: eraiki dezagun
Leonardok asmatutako bizikleta



**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEAK
EGITEKO LANA**



**HISTORIA MAMITSUA DUEN IZENBURUA:
LEO DA VINCI. MONA LISA MISIOA**

Unitate didaktiko honetan ikasiko dugu zein izan ziren Leo da Vinci eta Mona Lisa.

**SERGIO MANFIOK, ZUZENDARI ETA GIDOILARIAK,
KONTATUKO DIGU NONDIK SORTU ZEN IDEIA**

Idazterakoan, lehenik eta behin pentsatzen dut ea idazten ari naizena umetan oso gustuko izango ote nuen. Dena abiadura handian gertatzen da, beraz, belaunaldien arteko ezaugarri komunak topatzea ez da erraza. Baina iruditzen zait, izenak desberdinak jarri arren, badela zerbait sakonean orduko eta gaurko haurrak lotzen dituen. Hori da, ziurrenik, abenturarako grina, deskubritzeko irrika, araurik gabeko sormena... Egun naturarekin dugun erlazioa hain handia ez den arren, ez da munduan haurrik zuhaitzeko etxe batean abentura-gau bat igarotzea amesten ez duenik edo bere eskuekin egindako ibilgailu fantastiko bat gidatu eta itsasoa gurutzatzen bere burua irudikatzen ez duenik. Zer esanik ez itsasontzi piratak! Leo Da Vincik islatzen ditu filmean xehetasun handiz marraztuta ageri diren amets horiek.





**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEAK
EGITEKO LANA**

**ANNA STINFALÉ
ANIMAZIO IKUSKATZAILEAK
DEKORATUEZ
HITZ EGINGO DIGU**

Film honetan, eszenetako asko benetako hiri batean gertatu dira, XV. mendeko Florentzian, eta horregatik fondo asko sortu behar izan genituen, proiektu arkitektonikoak balira bezala. Hiria duela mende asko nolakoa zen jakiteko ikerketa xehatua egiteaz gain, xehetasun arkitektoniko ugari sortu eta estilizatu genituen garai hartako *look*-a eskuratzeko. Florentziaz gain, zenbait baso, aintzira, itsaso, basoaren hondakin eta Leoren laborategia ezkutatzen duen sahas handia ikus ditzakegu. Pelikularen eszenatoki nagusiak, gutxi gorabehera, 300 izan ziren.



SINOPSISIA

Leo Da Vinci margolari eta asmatzaile gazteak ideia asko zituen buruan. Seko maitemindu zen Mona Lisaz, sute baten ondorioz etxea galdu zuen neskaz. Leo hari laguntzen saiatuko da, eta abentura ero bezain zirrargarri bat bururatuko zaio egoera konpontzen saiatzeko. Montecristo irlatik gertu, duela urte asko naufragatu zuen pirata-ontzia topatu nahi du, bertan ezkutatuta dagoela dioten altxor zoragarria eskuratzeko. Altxor horrekin iruditzen zaio Mona Lisaren arazoak konpondu egingo direla, hortaz, biek, euren lagunekin batera, batere erraza izango ez den bidaia bati ekingo diote. Esan beharrik ez dago, altxorra eskuratu nahi duten pertsona bakarrak ez direla...





**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEAK
EGITEKO LANA**

KLIK

AHOLKUAK
ON LINE,
KLIKATU HEMEN



**PROPOSAMEN DIDAKTIKO HAU LANTZEKO
AHOLKU METODOLOGIKOAK**

Metodologia-proposamen zehatz honek elkarrizketa du oinarri beraz; azken batean, etika biziaren trebakuntza bat da. Bizikidetzarako, pertsonen arteko errespeturako eta garapen intelektualerako beharrezko prozedurak eta jarrerak martxan jartzen dira. Era ordenatu eta sistematikoan hitz egiteak lagunduko du elkarrizketa modu eraikitzailean erabiltzeko ohitura hartzen. Elkarrizketa batean, beste pertsonaren iritzia eta hitz egiteko txanda errespetatzen dugu, eta entzuteko gaitasuna eta pazientzia trebatzen ditugu. Honez gain, gure iritzia argudiatzen eta gure kideek zer pentsatzen duten hobeto eta sakonago ikasten dugu; modu horretan, errazago zaigu haiek ulertzea eta haiekin enpatizatzea.



**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IKASLEEKIN
EGITEKO LANA**

KLIK

GEHIAGO
JAKITEKO,
KLIKATU HEMEN



**ERRENAZIMENTUA ITALIAN.
MUGIMENDU HUMANISTA**

XV-XVI. mendean, gizakia izaki ahalguztiduntzat jotzen zuten; garapenerako gaitasun mugagabeduna, eta jendea animatzen zuten ezagutzaren esparru guztietan trebatzera eta beren gaitasunak erabat garatzera.



2

**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IKASLEEKIN
EGITEKO LANA**

**HEZKUNTZA UNIBERTSALAREN
ALDEKO APUSTUA**

Hezkuntza unibertsala funtsezkoa zen eruditut gaitasuna eskuratzeko, eta, horregatik "unibertsitate" hitza erabili zen ikasketa-etxe bat deskribatzeko. Momentu hartan, unibertsitateak ez ziren alor espezifikoetan espezializatuak, izan ere, ikasleei garai hartako zientzia, filosofia eta teologia ikuspegi zabal bat irakasten zitzaien. Hezkuntza unibertsal hori oinarria izaten zen, eta hortik abiatuta beste ikaskuntza bati heltzen zioten esparru espezifiko batetako maisu izateko.


**LEONARDO DA VINCIREN
ASMAKUNTZAK**

Bizikleta. Helikopteroa. Buzo-jantzia. Tankea. Kalkuladora. Planeagailuak. Paraxuta. Katapultak.

KLIK



GEHIAGO
JAKITEKO,
KLIKATU HEMEN



**LEONARDO DA VINCIREN
BIZITZA**

Honako esteka
hau iradokitzen dugu

KLIK





**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IKASLEEKIN
EGITEKO LANA**



**MONA LISA, HISTORIAN GEHIEN BISITATU
DEN XV. MENDEKO "MONA"**

"Monak" italiara zaharrean "andrea" esan nahi du

Francesco del Giocondoren emaztea zen *Lisa Gherardiniren* erretratua ezagunagoa da *La Gioconda* edo *Mona Lisa* izenarekin. Margolan hori Leonardo da Vinci Errenazimentu italiarreko polimatarena da. Frantziako Francisco I. erregeak eskuratu zuen 4000 eskudoren truke, XVI. mende hasieran, eta, orduetik, Frantziako Estatuaren jabetzakoa da. Louvre museoan dago ikusgai.

La Gioconda munduko koadro famatuentzat jo izan da. Fama hori zor zaio, ziurrenik, literatur erreferentzia ugari, protagonistaren identitateari buruzko hipotesi askotarikoei eta 1911ko abuztuaren 21ean jasan zuen lapurreta  ikaragarriari.

Da Vinciren azken lan handia da gainera. Koadroa amaitu ostean, Da Vincik Erromara eraman zuen, eta, ondoren, Frantziara, eta han eduki zuen hil zen arte, Clos-Lucé gazteluan zuen egoitzan.

**EDERTASUN KANONAK
XV. MENDEAN**

Edertasun-kanon femeninoa: emakumeak azal zuria eta masailak gorritzak izatea zen onena; hilea horia eta luzea, eta begi handi eta argiak. Gorputz perfektutzat jotzen ziren sorbalda estuak, aldakak pixka bat markatuak eta bular txikiak. Anatomia perfektuaren bilaketa horretan, ugaritu egin ziren gorputz biluziak koadro askotan. Edertasun-gaiak, gehien, artean islatu ziren, eta aldi hartako adierazgarrienak honako hauek izan ziren:



La Gioconda edo *Mona Lisa*, 1503.
Leonardo da Vinci.

Venusen jaiotza, 1483.
Sandro Botticelli



**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IKASLEEKIN
EGITEKO LANA**

Edertasun-kanon maskulinoari dagokionez, ardatz gisa har dezakegu Miguel Angelen *David* eskultura zoragarria; horri soilik gehitu behar zaizkio ile luzea eta distiratsua, bekain iletsuak eta markatuak, baraila indartsua eta bularralde zabala.

Miguel Angelen *David*, 1501



KLIK


TESTUA OSOA
IRAKURTZEKO,
KLIKATU HEMEN

GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO GOGOETA

Existitzen al ziren giza eskubideak 1948ko Giza Eskubideen Hitzarmen Unibertsalaren aurretik?

Giza eskubideak gizaki orok ditugun eskubideak dira; gizaki izate hutsagatik ditugu.

Eskubide horien atzean hainbat funtsezko balio daude, bere antolakuntza politikoa eta juridikoa demokratikotzat jotzen duen gizarte orok defendatu beharreko balioak, hain zuzen. Pertsona orok ditu eskubide berberak, bereizketarik gabe, edozein dela ere arraza, sexua, orientazio sexuala, erlijioa, iritzi politikoa, estatusa, etnia, jatorri nazionala edo beste edozein baldintza.





**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

FILMA HITZ BAKARREAN

Borobilean eserita, irakasleak filmari buruz zer iritzi duten galdetuko die; partaide bakoitzak **hitz bakarrarekin** erantzun beharko du, eta arbelean idatzi.

Arbelean idatzitako zerrenda batek elkarrikeria susta dezake.

PERTSONAIEN DESKRIBAPENA. IRUDIKATZEN DITUZTEN BALIOAK

Jolas hau egiteko borobilean eserita jarraituko dugu. Arbelean hiru zutabe bereiziko ditugu. Horietako batean, pertsonaien izenak idatziko ditugu; beste batean, deskribatu egingo ditugu, eta, hirugarrenean, gure ustez irudikatzen duten balio etikoa idatziko dugu. Parte har dezaten sustatzeko eta norbait zer esan ez dakiela geratzen bada, balioen zerrenda bat eduki dezakegu idatzita nora jo jakiteko.

	<u>Nolakoak dira</u>	<u>Zer balio irudikatzen dute XV. mendea</u>	<u>Zer balio irudikatzen dute XXI. mendea</u>
LEO			
LORENZO			
MONA LISA			
AGNES			
NICOLÓ			
PIRATAK			



**Balioen zerrenda*

Adiskidetasuna / Baikortasuna / Ausardia / Eskuzabaltasuna / Fideltasuna / Maitasuna / Partekatzea / Izakiarekiko fedea / Gizatiarra / Etika / Lorpen handiak eskuratzea / Duintasuna / Umiltasuna / Justizia / Errespetua / Erantzukizuna / Solidaritatea / Tolerantzia / Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna



**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**



ELKARRIZKETA LANTZEKO PROPOSAMENAK:

- Abentura-film honek oinarrian Errenazimentuko zein pertsonaia ditu?
- - Zer esan nahi du **polimata** izatea?
- Leonardo da Vinci **polimata** zen?
- Leonardo da Vinciren asmakuntzak. Filmean asmakuntzetako zein ikusi dugu?
- Bilatuko dugu besteren bat? Leonardoren asmakuntzaren bat egun oraindik indarrean dago?
- Hobeto bizitzen lagundu diguten historiako asmakuntzak berrikus ditzagun.
- Edertasun-kanonak filmean. Pelikulako pertsonaiek betetzen dituzte XV. eta XXI. mendeko edertasun-kanonak?
- Zer parekotasun dituzte gizonezkoenak? Eta emakumezkoenak? Zertan ez dute antzik?
- Zerk markatzen du edertasun-kanona?
- Publizitateak, modak markatzen dute edertasun-kanona? Edertasun-kanonak jarraitzeak libre egiten gaitu?
- Moda EZ jarraitzea posible da?
- Desberdin sentitu edo pentsatzeak aske egiten gaitu?
- Integratuak sentitzeko, hobe da desberdin ez pentsatzea?



	<u>XVeko</u> <u>kanona</u>	<u>XXIeko</u> <u>kanona</u>
LEO		
LORENZO		
MONA LISA		
AGNES		
NICOLÓ		

- Pertsonaiek zer mendetako kanonak betetzen dituzte?
 - Pentsatzen duzuenarekin kontsekuente izan eta zeuen burua errespetatzea
 - edo "edertasun-kanonaren botereak" markatzen duen kanonak jarraitzea?





3

**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

ARIKETA:

Eraiki dezagun Leonardok asmatutako bizikleta.
Hemen daude argibideak.



Moztu, tolestatu eta pegatu.